# HaUrreSkoLak

**Usurbil**
**2026/03/24**

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA — DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

EUDEL

# HAUR HEZKUNTZA - ARAUDIA

- **17/2023 LEGEA, abenduaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzarena**.

11. artikulua.– Haur-hezkuntza.

1.– Haur-hezkuntzaren **helburu nagusia** da **haurren garapen integralean eta orekatuan laguntzea**, dimentsio guztietan eta familiekin lankidetza estuan, ikasleek oinarrizko konpetentziak garatzen dituztelarik.

2.– Haur-hezkuntzak baldintza egokiak bultzatu eta eskaini behar ditu Euskal Autonomia Erkidegoko **bi hizkuntzetan elebitasun orekatua** bermatzeko, eta, gainera, hezkuntza-ekintza batzuk egingo ditu atzerriko hizkuntza batean.

3.– Haur-hezkuntza jaiotzatik sei urtera bitarteko hezkuntza-etapa da, eta bi ziklo ditu: lehenengoa, hiru urtera bitartekoa, eta bigarrena, hiru urtetik sei urtera bitartekoa. Eusko Jaurlaritzak, dekretu bidez, bi urtetik aurrera **doakotasuna** luzatu ahal izango du. **Era berean, Haurreskolak Partzuergoa bultzatuko du, eskaintza unibertsaleko, kalitatezko eta doako zerbitzu publiko gisa**.

4.– Haur-hezkuntza borondatezkoa da, eta **ikasleen garapen kognitibo, afektibo, sozial, artistiko eta fisikoan laguntzea du helburu**, bereziki elkarbizitzarako balio zibikoetan eta berdintasunean oinarritutako hezkuntza sustatuz.

# HAUR HEZKUNTZA - ARAUDIA

- **297/2002 DEKRETUA,** abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko haurren Haur Eskolak 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan arautzen dituena.

- **16/2003 EBAZPENA,** urriaren 20koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, argitara ematen duena hiru urtetik beherako haurren eskolak eta horientzako asistentzia- eta hezluntza-arreta kudeatzeko Haurreskolak Partzuergoa eratzeko Euskal Autonomia Erkidegoko udalarekin izenpetu beharreko lankidetza hitzarmenaren eredua, urtarrilaren 28ko 6/2025 Ebazpenaren bidez aldatua.

- **215/2004 DEKRETUA,** azaroaren 16koa, 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezarri, eta abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren artikulu batzuk indarrean iraunarazten dituena.

HaUrreskoLak

# HAURRESKOLAK PARTZUERGOA

- **Eraketa – 31 udal** (6/2015 Ebazpena, 16/2003 Ebazpena aldatzen duena).
  Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa eta Ayala/Aiara, Arraia-Maeztu, Bernedo eta San Millán/Donemiliaga; Abadiño, Amoroto, Aulesti, Bakio, Dima, Elorrio, Etxebarri, Gautegiz-Arteaga, Gernika-Lumo, Ispaster, Larrabetzu, Lekeitio, Mundaka, Muxika, Ondarroa, Urduña, eta Zeanuri; Ataun, Azkoitia, Beizama, Deba, Errezil, Lizartza, Mutriku, Orendain, Zegama eta Zerain udalerriak.

- **Gobernu-organoak**.
  A) Batzar Nagusia
  B) Zuzendaritza Batzordea.
  Partzuergoko lehendakaria (Hezkuntza Sailburua), lehendakariordeak (Nekazasitza Saileko ordezkaria) eta beste 8 kide osatzen, 4 Eusko Jaurlaritzak izendatuak, Hezkuntza arloan eskumena duen Sailaren proposamenez lau eta Gizarte Gaietan eskumena duen Sailaren proposamenez bat, eta 3 Partzuergoan dauden udalerriak ordezkatzeko izendatuak.
  C) Gerentea
  D) Lehendakaria
  E) Lehendakariordea

HaUrreskoLak

# HELBURUA ETA XEDEA

- **Partzuergoaren eginkizun nagusia**

  Partzuergoa osatzen duten udalerrien lurralde-eremuko Haurreskolen kudeaketa integrala.

- **Xedea:**

1. Familiekin lankidetzan, **haurraren garapen integrala** eta sozializazioa.
2. **Ezberdintasunak konpentsatzeko** beharrik handienak dituztenei arreta eskaintzea, parekotasunaren bidean.
3. Hasieratik Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan **elebitasuna bultzatzea**.
4. **Familiei laguntza-zerbitzua** ematea.
5. **Landa-eremuetako biztanleei hezkuntza eta laguntza** izaerako zerbitzua eskaintzea.

# UDALERRIAK PARTZUERGOAN

| | UDALAK | |
|---|---|---|
| | Guztira | Partzuergoa |
| ARABA | 51 | 28 |
| BIZKAIA | 113 | 79 |
| GIPUZKOA | 88 | 75 |
| Guztira | 252 | 182 |

## Udalak

Partzuergoan integratuta ez dauden udalak
%7 Udal haur-eskolak
%21 udal txikiak

Partzuergoko udalak




**Biztanleria**




| | *BIZTANLEAK | |
|---|---|---|
| | Guztira | Partzuergoa |
| ARABA | 332.851 | 322.544 |
| BIZKAIA | 1.144.019 | 1.109.353 |
| GIPUZKOA | 719.875 | 663.168 |
| Guztira | 2.196.745 | 2.095.065 |

**EUSTATen Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistikan 2023ko urtarrilaren 1eko datuak*

# HAURRESKOLAK ETA PLAZAK

Udalak
**182**

Haurreskolak
**239**

Plaza kopurua
**8919**

| | UDALERRIAK | HAURRESKOLAK | PLAZAK |
|---|---|---|---|
| **ARABA** | 28 | 46 | 1662 |
| **BIZKAIA** | 79 | 102 | 3795 |
| **GIPUZKOA** | 75 | 91 | 3462 |

- Plaza kopurua
- Gelak eta plazak egokitu daitezke matrikula beharren arabera

HaUrreskoLaK

# ERAKUNDEEN BETEBEHARRAK ETA FUNTZIONAMENDUA



**BAKOITZAREN BETEBEHARRAK :**

- **UDALAK**
  - Eraikuntza jarri eta mantenua eta garbiketa.
- **PARTZUERGOAK – EUSKO JAURLARITZAREN FINANZIAZIOA**
  - Ekipamendua.
  - Pertsonalgoa.

**FUNTZIONAMENDUA:**

***HAURREKOLA BAKOITZEAN JARRAIPEN BATZORDEA***

- Osaera: Udala, hezitzaileak, familiak.
- Eskumenak: Haurreskolaren egunerokotasuna, ekintzak, egutegia,…

Haurreskolak

# HAURRESKOLEN EGUTEGI ETA ORDUTEGIA

- **Egutegia**

Urtean 196 egunetako arreta. Jarraipen Batzordeak  onartzen du betiere egutegiak araudia betetzen badu.

Irailaren 4tik uztailaren 31rakoa. Hala ere haurreskola guztiak itxi egiten dira uztailaren hirugarren astean.

- **Ordutegia**

Bi ordutegi mota eskaintzen dira*:

- Goizekoa (7:30etatik – 14:00etara).
- Egun osokoa (7:30etatik 16:00etara)– Gehienez 8 ordu.

* Familia bakoitzak rabakitzen du nahi duten ordutegia/egonaldia.

# ZERBITZUAREN FUNTZIONAMENDUA

- **Doakotasuna**

  2023-24 ikasturtetik Haurreskolak Partzuergoko zerbitzua doakoa da Zerbitzua behar dute ahalik eta familia gehinetarako iristeko.

- **Haurren asistentzia**

  - Haurrei, hilero %80ko asistentzia eskatzen zaie.
  - 2024ko martxoan hasi zen jarraipena modu sistematikoan egiten.

# RATIOAK ETA PERTSONALGOA

- **Haurreskoletako ratioak**

  - **Ratioa / haur kopurua unitate edo gela bakoitzeko**

  - 0-1 adin tartea: 8 haur gehienez.
  - 1-2 adin tartea: 13 haur gehienez.
  - Taldekatzea: 10 haur gehienez (ezin dira 0-1 adin tarteko 5 haur baino gehiago onartu).

# RATIOAK ETA PERTSONALGOA

- **Hezitzaile kopurua gela edo unitate bakoitzeko**

  - **0-1 adin tarteko unitateak:**
    - 4 haur arte hezitzaile bat.
    - 5 haurrekin 1,5 hezitzaile.
    - 6tik aurrera, 2 hezitzaile.
  - **1-2 adin tarteko unitateak:**
    - 5 haur arte hezitzaile bat.
    - 6/8 haurrekin 1,5 hezitzaile.
    - 9 haur edo gehiago, 2 hezitzaile.
  - **Taldekatzeak. Gehienez 0-1 urteko 5 haur.**
    - 4 haur arte hezitzaile bat.
    - 5 haurrekin 1,5 hezitzaile.
    - 6tik aurrera, 2 hezitzaile.



* Indartzeak haurren egonaldiak zabalak badira.

HaUrreskoLak

# IZEN EMATE PROZESUA ETA ARAUAK

- **Arauak:**
  - Haurrek **17 aste beteta** izan beharko dituzte haurreskolan hasterakoan.
  - Haurra **ez da onartua izango baldin eta gurasoak jaiotzagatiko eta adingabearen zaintzagatiko prestazioaz gozatzen** ari badira haurra haurreskolan hasi behar deneko datan. Bikotekideen arteko **5 aste salbuetsita**.

- **Izen ematea:**
  - Ohikoa: Apirila/maiatza (aurten apirilaren 13tik maiatzaren 4ra). Integratuko diren haurreskoletan udalak/haurreskolak egingo du beraiek erabakitako datetan. Irailean haurreskolako lehen egunean hasteko.
  - Ezohikoa: Hilabetero irailatik apirilera. Hileroko lehen 8 egunetan. Hurrengo hilabeteko lehenengo haurreskola egunean hasteko.

∗ Presentzialki haurreskoletan edo online Hezkuntza Saileko aplikatiboan.

HaUrreskoLak

# LEHENTASUN IRIZPIDEAK / BAREMAZIOA:

| LEHENTASUN-IRIZPIDEAK | PUNTUAK | |
|---|---|---|
| | GEHIENEZ | ATALKA |
| **4.1.- Anai-arrebak haurreskolan dagoeneko matrikulatuta egotea** | 9 | |
| **4.2.- Bizilekuaren edo lantokiaren gertutasuna (kontzeptu hauek ez dira metagarriak)** | 7 | |
| a) Amak, aitak edo legezko tutoreak haurreskolan lan egitea | | 7 |
| b) Bizilekua haurreskolaren udalerrian izatea (Haurreskolarik ez dagoen kasuetan, bizilekutik gertueneko haurreskolarako esleituko dira puntuak) | | 5 |
| c) Eskatutako haurreskolaren udalerrian izatea amaren, aitaren edo lege ordezkariaren lantokia | | 3 |
| **4.3.- Ama, aita edo legezko tutoreen lan-egoera (behin-betiko ezintasun iraunkor absolutua lanean jardutearekin parekatuko da ondorio hauetarako)** | 5 | |
| a) Bi gurasoak edo legezko tutoreak lanean jardutea | | 5 |
| b) Guraso bakarreko familietan guraso bakarra edo legezko tutorea lanean jardutea | | 5 |
| c) Guraso bat lanean eta bestea, edo legezko tutoreak, enplegu bilaketa aktiboan edo ikasketa ofizialak egiten aritzea | | 2 |
| d) Bi gurasoak, legezko tutoreak edo, guraso bakarreko familia bada, guraso bakar hori, enplegu-bilaketa aktiboan edo ikasketa ofizialak egiten aritzea | | 2 |
| **4.4.- Familia-unitatearen urteko errenta (d azpiataleko puntuak metagarriak dira)** | 4 | |
| a) 2024ko errenta-aitorpenaren zerga-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren zerga-oinarriaren batura 79.380€ edo gutxiagokoa bada | | 1 |
| b) 2024ko errenta-aitorpenaren zerga-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren zerga-oinarriaren batura 47.628€ edo gutxiagokoa bada | | 1,5 |
| c) 2024ko errenta-aitorpenaren zerga-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren zerga-oinarriaren batura 15.876€ edo gutxiagokoa bada | | 2 |
| d) Eskatzailea ez den adin txikiko seme-alaba bakoitzarengatik | | 0,25 |
| **4.5.- Haurraren, amaren, aitaren, legezko tutorearen edo anai-arrebaren baten desgaitasuna** | 3 | |
| a) Haur eskatzailearena | | 3 |
| b) Haren amarena, aitarena, legezko tutorearena edo anai-arrebaren batena | | 2 |
| **4.6.- Genero-indarkeriaren biktima izatea** | 2 | |
| **4.7.- Familia ugariko kidea edo guraso bakarreko familia izatea**<br>a) Maila bereziko familia ugariko kidea izateagatik | 1,5 | 1.5 |
| b) Maila orokorreko familia ugariko kidea izateagatik | | 1 |
| c) Guraso bakarreko familia bi haur edo gehiagorekin | | 1,5 |
| d) Guraso bakarreko familia haur bakarrarekin | | 1 |
| | | |
| **4.8.- Terrorismoaren biktima izatea** | 1 | |
| **4.9.- Haur eskatzailea harrera-familian egotea** | 1 | |

# ALDERDI PEDAGOGIKOA

- **Haurreskoletako Hezkuntza proiektua**

  Partzuergoaren Hezkuntza proiektua.

  Haurreskola bakoitzak bere errealitatera egokitu eta urteroko hezkuntza plana lantzen du (ekintzak,...).

- **Hezkuntza-premia berezien arreta**

  Detekzioa eta esku-hartzea.

  Gizarte zerbitzu eta osasun zerbitzuekin elkarlana.

  Gizarte zerbitzuetatik eratorritako haurrek lehentasuna.

- **Hezitzaileen formakuntza**

  Derrigorrezko 80 ordu urtean – 50 ordu Haurreskolak Partzuergoak emandakoak.

# ALDERDI PEDAGOGIKOA

- **Haurraren zaintza eta arreta arloan**
  - Haurreskolan giro eta txoko desberdinen diseinurako oinarri pedagogikoak.
  - Detekzio eta esku-hartze goiztiarra haur hezkuntzako lehen zikloan.
  - Mugimendu librea eta umearen garapen harmonikoa.
  - Ahozko ipuin kontaketaren didaktika haur hezkuntzako lehen zikloan.
  - Haurreskolan adimen emozionala lantzeko proposamenak.

# EUSKARA / BERDINTASUNA / KULTURARTEKOTASUNA

- Zerbitzua euskaraz soilik ematen da.
- Euskara plana.
- Berdintasun plana.
- Genero indarkeriaren kontrako protokoloa.
- Sexu-joera genero-identitatea eta genero-adierazpenaren araberako jazarpenaren aurkako protokoloa.
- Kulturartekotasuna eta jasangarritasuna: Susiie proiektuan.

# Eskerrik asko

EUSKO JAURLARITZA
HEZKUNTZA SAILA
GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
EUDEL